

FUNTSESKO ELKARTEAK

1.-HORNITZAILEAK:

Gure enpresa funtzionamenduan jartzeko gu izango gara gure hornitzaile propioak. Baina baserriaren martxan jartzeko, hasieran soilik, hornitzaile konkretu batzuk beharko ditugu. Hasteko behar duguna lortzerakoan, gu ekoiztuko ditugu beharrezkoak diren gauzak, ekoiztutako produktuetatik haziak lortu, simaurra oiloen bidez lortuko dugu, adibidez.

- Oiloak lortzeko, *Euskaber* enpresari erosiko dizkiogu. Enpresa honi txitak erostean bertoko salmenta bultzatu, sustatu eta beratuko dugu, izan ere, Euskadiko baserria baita.
- Haziak lortzeko baserritarrek antolatutako azoketan edota tokiko nekazariei erosiko dizkiegu, beti ere, berain haziak naturalak eta produktu kimikorik gabekoak (ekologikoak) hautatuz.
- Simaurra eta ongarria ere baserritarri erosiko dizkiegu, batez ere, behiena, orturako emangarriena delako. Ostean, oiloak sortuko dute gure baratzarako simaurra.

2.-FUNTZEZKO BAZKIDEAK:

Inazio: Nekazaritzaz asko dakienez, eta formatuta dagoelako baratzeko ekoizpen prozesuaren atal guztietaz arduratzen da, eta egunero hainbat ordu pasatuko da baratzean lan egiten.

Iker: Kontuak eramaten ditu, diru sarrerak, gastuak, ekonomiaren antolakuntza, materialen antolakuntzaz arduratzen da. Horrez gain, formakuntza eta ikaskuntza eskolekin kontaktuan mantentzen da, eskola hauek praktikako ikasleak eramateko.

Ibai: Ibai-k gure web-gunea eta sare sozialak eramango ditu eta beraien eguneratzeaz jabetuko da.

Markel: Markel produktu finalaren antolakuntzaz jabetzen da, barazki eta fruitu guztiak garbitzen ditu, eta gero kaxetan gordetzen ditu saltzeko prest egoteko. Horrez gain, lurraren desinfektazioaz eta lurraren hazien ereinaz jabetuko da.

3. BANATZAILEAK (Denda ekologikoak)

- Enpresa ekologikoekin lortuko diren akordioak lagunduko digu gure produktuei etekin gehiago ateratzeko, hilean diru asko jasoko dugulako enpresa ekologikoei esker gure produktuak saltzen.
- Hasiera batean Bizkaiko denda ekologiko guztiekin akordioak egingo DITUGU, ondorioz zirkulu bat itxiko dugu eta negozioan sartzeko hezia sendotuko dugu. Handituz joango da zirkulu hau baserria hazten den heinean.

- Denda ekologikoek diru sarrera bat ziurtatuko dute hilero, orduan konfiantza edukiko dute guregan, arriskuak eta baserritarrek dauzkaten ziurgabetasunak kenduko dizkigulako gutxinaka.